

KAIXO!!

- **15:00** Gasteizko Gamarra igerilekuan eta **16:15** Iruñako (Berriozar) Eroski Zentro Komertzialean, guraso eta hurrekin **elkartu** eta koordinatzaile eta begiraleen **aurkezpena** egin ondoren, autobusak Beintza eta Arantzarantz abiatuko dira.



- **17:30** Haurrei **ongi etorria** egingo zaie aterpetxeetan. Kanpaldiaren, begiraleen, haurren eta herriaren aurkezpena, aterpetxea ikusi, begirale bakoitzaren taldea egin, taldeko haurren fitxak bete, logelak banatu eta antolatu. Ondoren, **arauak** azalduko zaizkie. Astean zehar denen artean ongi konponzeko arau batzuk jartzen ditugu. Barruko arauak, kanpoko arauak eta elkarbizitzako arauak.



- **20:00 Afaria.** Otordu guztietan bezala talde arduradun bat egongo da jangela prestatu, bildu eta garbitzeko.



- **21:30 Gaubela.** Afaldu ondoren ordu beteko ekintza bat egonen da; jolasak, musika... Lehenengo egunean elkar ezagutzen hasteko, **“ezagutza jolasak”** egingo ditugu.
- **23:00 Lotara.** Gaubela bukatu ondoren, komuneko buelta egin, pijama jantzi eta ohean sartzeko ordua izaten da.